

“LEZOKO ZENBAIT HITZ ETA ESAMOLDE”

*“Gaintzakoei,
urte luzeetan
erakutsi didaten
guztiagatik
eta lezoar guztiei
betidanik
eman didaten
adiskidetasun beroagatik”*

Izatez ez nauzue lezoarra, baina urte luzeetan bizi izandu naiz Lezon eta lezoarrekin, Gaintxurizketan hasieran eta Lezoko kalean gero. Hasiera hasieratik deitu zidan atentzioa Lezoko hizkera bereziak, eta honela, hemen Lezon aditutako hitz eta esamoldean ikasteari ekin nion. Ez da lan makala izan, franko baitira lezoarren ahoan adi daitezkeen hitz eta esaldi bereziak, bai kalean, eta zer esanik ez baserritarren artean.



*“Itsaso gainetik Jaizkibel mendia, mendi gibelean
Jaizkibel oinetan Lezoko herria”*

Garai zaharretan Lezo baskoien lurraldea izan zen, eta hau dela eta hemengo euskara gizatalde honi dagokiona da: nafarrera. Hizkuntzalaritzan adituak direnek Iparraldeko Goi Nafarrera izeneko euskalkiaren barruan kokatu dute, Bonaparte Printzeak bere lehenengo sailkapen dialektologikoari ekin zion momentu berberatik hain zuzen. Euskalkiari dagokionez, Gipuzkoako aldakera edo azpieuskalkiaren barruan, Irun, Hondarribia eta Oiartzungo euskararekin batera, kokatzen da.

Baina Lezok betidanik muga egin du gipuzkeraz mintzo diren herriein, Erreterria eta Pasai Donibanerekin alegia. Egoera mugatiar honek bere eragin haundia eduki du Lezoko euskararen baitan, bere barnean gipuzkeratik eta Iparraldeko goi nafarreratik datozen hitz, aditz eta egiturak nahasten baitira. Hauxe oso ongi ikus daiteke adizkera

ezberdinetan eta berezko hitanoan. Baina hitz aspertua alde batera utziz, aurkeztuko dizuet segidan arloz arlo eta atalez atal, urte hauetan bildu ditudan hitz eta esamoldeen bilduma. Tamalez ez dira diren guztiak azalduko, ezta ez diren guztiak faltako.

1.- Zenbait ezaugarri fonetiko

Aipatzeko bereizketa haundirik ez dagoen arren, har ditzagun kontuan hiru ohartxo hau:

- a.- Nafarreraz, Iparraldeko Goi Nafarreraz behintzat, J letra biguin ahoskatzen den arren, Gipuzkoako aldakera mintzo den bailaran (Lezo honen barruan dago), gogor ahoskatzen da, gipuzkeraz egiten den bezala.
- b.- Z letra ez da ahoskatzen, bere ordez erdi S erdi X egiten delarik.
- d.- LL, TT eta Ñ bustidurak oso ugariak dira.

2.- Aditz eta adizkera bereziak

Aipaturiko bi euskalkien aditzak nahasten dira, oso gauza bitxiak sortaraziz.

- a.- Ukan aditzaren orainaldia U bokala hartuz gauzatzen da, Iparraldeko Goi Nafarreran egiten den bezalaxe: dUt, dUgu, dUzue,...
- b.- Egon aditzean gipuzkerazko formen artean oso bestelakoak ikus daitezke: nago, dago, zaude... alde batetik, eta zozten (zagozte), dozte (dagozte), zeozten (zegozten)... bestaldetik.
- d.- Aditz infinitiboak laburrak direnean luzatu egiten dira -TU/-DU silaba hartuz: izanDU, egonDU, haziTU, heziTU,...
- e.- NOR-NORI-NORK aditz egituraren lehenaldian forma bereziak, orainalditik kalkatutakoak, azaltzen dira: zidazuten, zizkidazun,...
- f.- NOR-NORI-NORK egituraren lehenaldian, ekintza hirugarren pertsonari egiten zaionean, erreflexiboen itxura hartzen duen -ZKA- silaba tarteka daiteke: eman geniZKAn, utzi niZKAn, ireki zeniZKAN,...
- g.- Erreflexibo itxura bera hartzen du forma honek: zapatak lotu naZKIt.
- h.- NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK aditz egituren barruan, eta anitzeko hirugarren pertsonari dagokionez, oso joera bitxia gertatzen da: eman NIOTEN, esan NIO-TEN, esan DIOTET, erori ZIZAIOTEN, gustatzen ZAIOTE,...
- i.- Zenbait gerundiotan tarteko silaba bat ezabatzen da: zer pasten da? / akortzen naiz,...
- j.- NOR-NORI-NORK egituraz egindako agintera askotan -KI- silaba gehitzen da: utziKlyok! TiraKlyozu! EmanKlyok! EsanKlozue! eginKlyok!...



*"Hemen hiltzen dira
euskaldun jendea,
aintzinetik baita guztiz
ezaguna Gurutze ahalduna"*

- k.- Hitanoaren barruan, eta lehenaldiari dagokionez, oso maiz, gehienetan ez esateagatik, gipuzkeraz azaltzen den -A- letraren ordez -KE- silaba ipintzen da: eman nioKEn, esan zioteKEn, itxi geniken,... Dena den nafar itxurako adizki hauen ondorian, gipuzkeratik datozenak erabiltzen dira ere: eman NIN, itxi genin,...

3.- Zenbait esamolde eta ezaugarri gramatikal

- a.- AITTU! -Oso erabilia AIZU!- ren ordez.
- b.- BARRENA, ZEHAR-en ordain gisa. Adib.- menditik barrena, kaletik barrena, Jaizkibeleetik barrena,...
- d.- GISAREN erabilpen zabala, BEZALA-ri tokia kenduz. Adb.- Andregai gisa aurkeztu zuten.
- e.- AHAL aditzaren erabilkera oharpen gisa. Adb.- Kontuz ibiltzen AHAL yaiz motel!
- f.- BAIT partikularen erabilkera trinkoa, beste sinonimo guztiak baztertuz. Adb.- Erua baitziok. Horixe esan baitu!
- g.- HELDU ez da iritsi bezala erabiltzen, orainaldiko etorri aditzaren formen ordainean baizik. Oso fenomeno ezaguna da Iparraldeko Goi Nafarreraren barruan. Adb.- Heldu dira (badatoz) etxera! Heldu al zara? (Ba al zatoz?),...
- h.- ARITU aditzaren erabilpen zabala. Adb.- Fubolean aitzen al zeazte? Pilotan aitu dira!...
- i.- KOXKORRA hitza nonnahi. Adb. -Mutil koxkorra, herri koxkorra, neska koxkorra,... haundizkoa dela adierazteko. Koxkortu aditza profusio berean erabiltzen delarik.
- j.- NORA erabiltzean, bakarrean bada -R- letra galtzen dute: mendi(R)a goaz, lantegi(R)a goaz, lantegi(R)a joan dira,... eta anitza denean, -ETARA bukaera ipini beharrean, -ETA ipintzen da: mezeTA(ra) goaz, hango herriTA(ra) abiatu dira, bota surTA(ra),...

k.- Agintera sinplea egiterakoan zenbait aditzeri -TU/-DU bukaera kentzen zaie: ZAN-PA hori motel!

l.- zenbait hitz eta esamolde berezi: haur hizkerako TTAKO! (Gipuzkerazko APATXI!) -eseri!- // ZIRIKITON erderazko Matusalen bezala. Adb.- Zirikitonen garaian gertatu al zen esan duzun hori? // MODUKOA-ren erabilkera laburtua: hori ez duk nire mo(du)koa! // esamolde eginak: BAI MOTEL ZAKURRAN BIOLIÑA! Edota ZAKURRAN PUTZA! ospetsua.

4.- Zenbait aldaera

Esate baterako: ABA (ahoa), EBIA (euria), ELBIYA (eulia), GABA (gaua), BIRIA (bidea), IUZKIYA (eguzkia),...

5.- Aditzak

EGONDU (egon), IZANDU (izan), HAZITTU (hazi), HEZITTU (hezi), MANIATU (erabili), MAXIATU (igurtzi), ESPOS(A)TU (ezkondu), EANTZI (erantzi), LOKAZTU (lo faltak eragindako egoneza), ZIMIKO EGIN (atximurra egin), PAILAKATU (laztandu, ferekatu), IRRIXTRATU (labaindu, txirristratu), ARTEXITU (artexia egin), PITZATU (pitzadura egin), TTIKITU (puskatu hamaika zatitan), TXEHETU = TXEHE-TXEHE EGIN (puskatu hamaika zatitan), ARITU (jardun), PE(G)ATZI (itsatsi, kolatu), ARPA JO (adarra jo), IRI-YANA JO (kanpaia jo, masturbatu), ZIRIA SARTU (engainatu, gezurra sinistarazi), MILIZKATU (txupatu, xurgatu), UMILDU (apaldu), MOZPELDU (hotzetik berora pasatzerakoan larruan -belarrietan gehienbat- gertatutako aldaketa eta gorritzea), AKEZTU (bere sexukoak estaltzeko joera hartu), EKENDU (kendu), EBAINDU (jipoitu, egurtu), KARETU (lurrak ontzea karea zabalduz), HAIZATU (puztu), AILE(GA)TU (iritsi), HORMATU (izoztu, jelatu), LEITTU (irakurri), ISKRIBITTU (idatzi), HELDU (etorri), EMAN eta E(RA)MAN modu berean esaten dira, ZERRATU (bete, jantzi, gainezkatu), PIKORTATU (mingostu, moztu, pasatu), BELTZATU (belztu), OBRATU eta LIBRATU (kaka egin, baina modu finean), AKUTSI/EAKUTSI (erakutsi), MARRANTATU (marranta hartu), NER-BIOSTU (urduritu), ERDOITTU (erdoildu), AKATU (akabatu, animaliak hil), LAKARTU (zakartu), ZARPAILDU (trakestu), KARRIATU (garraiatu), IYO (igo), PARTITTU (banatu), ERDIBITTU (banatu), ZORITTU/OMOTU (fruituak eta belarrak heldu), KIRKILDU (aletu), TXORROZTU (zorroztu), GAMUSTU (kamustu), NASTAKATU (nahastu, korapilatu), BAZKATU (animaliek jan), UMATU (animaliek erditu), GAINEZKATU (bere baitatik atera), LAINEZTU (harrotu),...



"Ezker, eskubi, zelai, baserri, ondorengoen oinarri, ohitura zaharrak, agurgarriak, Herriko seme gizon argiak".

6.- Adjetiboak

GALBANOSUA (galbana edo pereza duena), ZERRATUA (betea, jantzia, adb.- oso bizar zerratua duzu), BELTZATUA (belztua), LAKARTUA (zakartua), FUERTIA (indar haundikoa, bizi-bizia,... adb.- oso kafe fuertia eman didazu), LAINOZTUA (lo faltak jota zaudela), LAINEZTUA (harrotua), ZETOSUA (zetatsua, burugogorra), KASKOIA (burugogorra), TEMOSUA (kasketosoa), EROSKORRA (egosteko gogorra, burugogorra), AZPISUGEA (faltsua), TTIKIA (txikia), AZAOSTRO (belarri luzea), ERRUBIYUA (ilehoria), TXEHE-TXEHE EGINA (lur jota), UMILA (apala), BROMOSUA (bromak egiten dituen), ATORRANTIA (pela, matrakosoa), MOKOFINA/MOKOGOXXO (gustoko gauzak bakarrik edota kutiziak jaten dituen), MOZPEL DUA (bero eta hotzaren arteko aldatetako jota), SUSA(RA) (behia arreske dagoenean), AKEZTUA (behiak beste behiak estaltzeko, zezena balitz bezala, joera hartzen duenean, pertsonengatik ere esan daiteke), ANTZUA (segidarik eman ezin dezakeena), ONDOEZA (gaizki dagoena, gaixo), ZARPAILA (Balدارra, traketsa), ZARPAILOTEA (zarpail haundia), MOZTAKA (pertsona ttikia eta pottokoa), POTTOKOA (potxoloa),...

7.- Irainak

POTROSUA, ASTAPOTRO, ZAKILA, BABUA, BILABA, ZITALA, ALUA, ALUITA, ZAKILOTIA, ARTABURU, BABALORE,...

8.- Lezorekin zer ikusirik dutenak

- a.- LEZOIA.- Ezponda modukoa, baina artifiziala. Garai batean Euskal Herrira etorritako gaskoiak lintzurak legortzen aritu izan ziren, hortarako lezoiak egiten zituztelarik. Erderaz "lezón" esaten zaie.
- b.- TRAPUJALE.- Lezoarrei ematen zaien goitizena. Badirudi Lezon oso gosete haundiak egon direla, eta hortik omen datorkie bere biztanleei gaur daramaten ezizen hau. Honela deitzen zaio ere, Lezoko Ihauteriaren pertsonaia nagusiari.
- d.- SAMARKO.- Honela deitzen zaio San Markos egunerako egiten diren opilei. Gaur ez dira opilak, garai batean izan ziren bezala, bizkotxoak baizik.
- e.- LEZOARRAK/LEZOTARRAK.- Lezokoak dira. Nekazal gunean lehenengoa erabiltzen da gehienbat, eta bigarrena kalean.
- f.- BIKARIYUA.- Honela deitzen zaio lezoko agintaririk nagusienari. Beste zenbait herritan erretore deitzen zaio.
- g.- SATSA (SARATSA).- Honela deitzen zaio Jaizkibeleko magalean dagoen leku zehatz bati.
- h.- AZABA(RA)TZA.- Jaizkibelen, itsaso aurrean dagoen kala. Itsasbelarrak jasotzen dituzte bertan. Pernantxo Intxaurrandietak izena eta bi lauburu zituen harrizko lausa ipini zuen bertako harkaitz batean, baina gaur desagerturik dago.

- i.- ARRANBIL.- Jaizkibel aurreko beste kala. Itsasbelarrak hartzen dituztenez, zenbait txirrika ikus daitezke aldameneko harkaitzetan. Lezoar asko joaten dira bertako kostara. Hondarribitarrek E(RE)NTZIN deitzen diote.
- j.- SATORJALE.- Hondarribitarrek lezoarrei ematen dieten goitizena.

9.- Egun izen bereziak Lezon erabiltzen direnak.

- 1.- DAMU SANTUA.- Honela esaten diote hildako guztien egunari.
- 2.- OLENTZERO EGUNA.- Gabon gauari esaten diote.
- 3.- GABON ZAHARRA.- Urte Zaharrari esaten zaio.

10.- Geografia eta izadiaren elementuak

LEZOA (lintzurak legortzeko egiten zen ezponda artifizia), IRRIYUA (erreka, ibaia), KAMIYUA (bidea, errepidea), ESTRATA (harri lausez egindako bidea), AIHEKA (aldea, gunea, bailara), KANTOIA (izkina, ertza), BIDETXIORRA (betiko bidea laburtzen duen senda), LOKATZA (lohia), LOKAZTEIYA (lokaztegia, lohizuen), KARAITZA (kararria, kisuharria), OLATUA (uhina, uahina), LINTZURA (padura, amara), EUTERA (egutera, eguzkia ugari jasotzen duen tokia), MOZPELA (laiotza), SOLERA (zolua),...

11.- Eguraldia

EBIYA (euria), EBI KOLPEA (euri kolpea), ZAPARRA (euri zaparra),

HAIZEAK: HEGUA, HEGOIA (hego haizea), IPARRA (ipar haizea), MENDEBALA (mendebaldeko haizea),...

12.- Animaliak/Abereak/Piztiak

SUBIA (sugea), XIRABA (zirauna), ERMIÑORIA (erbinudea), URUA (huroia), ZATITSUA (belar arteko sagua),...

13.- Txoriak eta hegaztiak

POTTORRO (kaio mota), TTORTTOLA (usapala), ZAPALAITZA (zepalaitza), USTAIZKA (buztanikara), PUTRIA (saia), ARTSUSO (Arabazozo), IÑARRA (enara, ainarra), TXAPETXA (txepetxa), ERABERA (hegabera), PARETATXORIA, KURRILUA,

TXURRILUA, ZIRIÑA (txori kaka).

14.- Landareak fruituak eta belarrak

TEPLA (hirustaren antzeko belarra), ALPALPA (luzerna, alfalfa), AILOBREA (esaten denez behiek jan ezker, oso gusto txarreko esnea ematen dute gero), OSIÑA (asuna), LAPAITZA (baratze eta belardietan azaltzen den hazi askotako belar gorri-ilun gaixtoa), TXIRTA, LETXUA (uhaza), SUBEJANA/SUBIJANA (pottoko gorri edota berdeak dituen landare bitxia. Esan egiten da sugeen jana dela, eta hortik datorkio izena), KAR-

DABERA, ASTRAKALUA (kardaberaren antzekoa baino lakarragoa oraindik. Baserritar batek kontatu zidanez, garai batean neskazahar zeuden neskei ahoan sartu egiten omen zitzairen eskarmentu gisa), LEZO SAGARRA (garai batean, Lezon egon zen sagarrik ugarien eta apreziatuenetakoa bertako sagardoa egiteko), PIÑU KOXKORRA (pinuburua), MAÑIKUA (berde ilun koloreko belarra, behin bakarrik edo moztu daitekeena), IÑORKIÑA (iratzea, belarra, eta sasia nahasirik), IRATZEA (ira, garoa), IÑARRA (txilarra, txinarra, garai bateko erratsak egiteko erabiltzen zena). KONDOTSA (Txustarra, musikina), PASKOLORE (San Joan lore), BELAR ONDUA (ontzen uzten den belarra), ZULOKO BELARRA (ziloko belarra), BESATA (belar besakada), BELAR ZAMA (sardekada), ZURKAITZA (baratzean landare lekadunetarako erabiltzen diren makilak), PIPER-BELARRA (barazkien artean azaltzen den belar mota. Jorratu beharra izaten da), BARRABASA (hirusten moduko belarra), GEEZIYA (gerezia)...

Gerezi motak: TXORI GEEZIYA, ANPOLUA, PIKOTA, SAN JOAN GEEZIYA, SAN PEDRO GEEZIYA,...



"Gora gora Lezo, hain izen haundiko, gure aurrekoen sorleku garbia, euskaldun herria".

15.- Zuhaitzak

oharra: Lezon zuhaitzari ARBOLA esaten zaio.

HAITZA (haritza), ARTIA (arte), A(R)KAZIYA (arkazia), PAGUA (pagoa), AMETZA, LIZARRA, URRITZA, GAZTAIÑA (gaztainondoa), SAGARRA (sagarrondoa), URKIYA (urkia), ALTZA, PANPANO (bananondoa, plataneroa), GEEZIYA (gereziandoa), ASKAK edo ARBASKAK (adarrak),...

16.- Zomorroak

XIXARIA (zizarea), LUHARTZA, ERLIYA (erlea), LIZTORRA, ERLEMANDUA,...

17.- Aziendak eta beraiekin loturikoak

TXOKORRA (txekorra, zekorra), MIATXUA (bigantxa), BEYA (behia), IRIYA (idia), BETIXUA (betizua, mendiko behi basatia), URRUXA (txahal emea), IRIXKUA (idizkoa, txahal arra), BIHORRA (behorra), ZERRIYA (zerria, txerria), ZAKURRA (txakurra), ASTUA (astoa), UMAMIÑETAN (animalia erdiminetan), UMATU (animaliek erditu),

KAENA (karena), AZPIAK EGIN (aziendaren oheak antolatu), ZILA (azienden zilborra), ERRUN (arraultzak jarri), EIYA (ehia, ikui-lua), SUSALDIA (behien arreske egoteko garaia), SUSAPUNTUN (susaltzen hasita dagoena), AKETZA (beste behiak estaltzeko joera hartzen duen behia), NATURA (azienden alua), KAXKARRIA (aziendari ipur aldeko ileetan trabaturik gelditzen zaizkion gorotz potroiloak), TXARRANTXA (azienden kaxkarriak eta hautsa garbitzeko erabiltzen den burnizko orrazi haundia), MAJARA (behiei jaten emateko erabiltzen den ontzia),...



"Izan lagun arteko herri maitaleak. Zahar eta gazte haur ta emazte egin dezagun bat".

18.- Baserriko lanabesak eta bestelako lan tresnak

ARRASTALUA (eskuara), GOZPALA (gorotzak ateratzeko erabiltzen den sardea), SALARDUA (sardea), LAUHORTZAKUA (belarra ateratzeko erabiltzen den sarde motza), IITAYA (igitaia), MATXETIA (aihotza), BORRA, PUNTAPIXA (iltzea), ENTENGA (iltze haundia), SEGAPOTO (zorroztarria gordetzeko), TXORROSTARRIA (zorroz-taria),...

19.- Nekazal giroko hitzak

GOTZA (gorotza, zimaurre), GOZTU (zimaurre ongarri gisa zabaldu), KARETU (karea zabaldu lurrak ontzeko), METAZORRO (neurri ttikiko belar pila), METAZORROTU (metazorroak egin), ERROILA (belar lerroa), ERBA (neurri handiko arbaxta, iratzeak garraiatzeko), ZOKILA (zokorra, lur potrokiloa), MAJARA (majadera. Behiei jaten ematekoa), GIZONTXAPERUA (txorimaloa), ZABALDIA (zabalera, eremua), MARTINBOLLUA (Alperra deitzen zaio beste zenbait tokitan. Neurri haundiko harria, lurrak zapaltzeko erabiltzen dena), BELARSORO (belardia, belazea, zelaia, soroa), PATSA (aziendari ttikitua ematen zaiena), OLUA (oloa), HORITZA (behiak, umatu ondoren, ematen duen lehenengo esne gozo-loditsua), PAJINA (auzolana), SAYA (SAIA), itxitura (HESIA), TAKETA (zutik jarritako egurra, askotan alanbrearekin biribildua), GOSARI TTIKIA (baserritarrek gosariaren aurretik, goiz goizean egiten duten gosaritxo), PERTIKA (gurdietako aurrekaldean zutik, ardatz moduan, egoten den egurra), KAROBIA (karea egiteko zuloa), BAZKA (aziendei ematen zaien belar jatea),...

20.- Jazkiak/arropak

SOIÑEKO (jazkia, soinekoa), ILLASTIKUA (elastikoa), ZAPELA (txapela), TXAPERUA (kapela), ESKALAPROIA (zuekoa), KAMIXETA (barneko alkandora zuria),...

21.- Etxea

TETXUA (sapaia), PARETA (horma), KANILA (etxeke iturria), SILA (aulkia), ATALAIA (egurrezko tranka etxeetako ateetan jartzen zena), KRIXKETA (maratila), ARGIKRIXKETA (argia piztekoa), ERRADIYUA (irratia), TELEBISIYUA (telebista), KALEFAZIYUA (berogailua), TELEFONUA (telefonoa), ARRAXKA (harrizkoa, lixibakoa),...

22.- Edariak

TTANTTO BAT (piska bat), ARDUA (ardoa), SAGARDUA (sagardoa), XIXARRA (zizarra, lehenengo sagardo gozoa), PITTARRA (sagardoa urarekin nahastua), URARDUA (ardoa urarekin nahastua), HORITZA (umatu ondoren behiak ematen duen lehenengo esne gozo horixka), ATXURRA/ZEPELIÑA (kristoren mozkorraldia),...

23.- Jateko lanabesak

KUTXAR(E)A (goilara, KUTXARAKADA (goilarakada), TENEDORIA (sardexka), KUTXILUA (aiztoa, ganibeta), LABAÑA (labaina), PLATERA, BASUA (edalontzia, godeleta),...

24.- Tresnak eta makinak

BARKUA (itsasontzia), BAPORIA (gaur honela deitzen zaie itsasontzi koxkor guztiei), ABIOIYA (hegazkina), KOTXIA (autoa), TRENA, TXINTXORROA (txalupa moduko tti-
kia),...

25.- Giza soina

KAXKEZURRA (buruhezurra), SAIA (zuria denez erderazko "caspa"ri deitzen diote), ZELDORRA (peka), HIZURRA (hezurra), LETAGIÑA (letagina, betortza), ZORNIYA/PASMOA (zornea), KIKA (hortza, haur hizkeran), KOSKABILLO (potro, barrabil), PITTITTOA (zakila), KRISTAU-SEIÑALEA (jaio-seinalea, jaiotzez ateratzen diren orbain ilunak), MINTXINGORRA (bitxingorra. Begietan ateratzen diren konkortxoak), BEGIXULO (begizulo), BELAUN KOXKORRAK (belaun hezurak), TIRANAHIK (nagiak atera), AHO ZABALKA (aharrausika),...

26.- Gaitzak

TROPEZIA (sabela haunditzean esaten zaio), TXARRANPIÑA (mingorria), KUKURRUKUEZTULA (tosferina), NAFARMIÑA (untxeek hartzen duten gaitza),...

27.- Hilabeteen izen bereziak

OTSABILA (otsaila), AGORRA (abuztua),...

28.- Auto mota ezberdinei ematen zaizkien herri izenak

PEXOTA / RENOLA / DOFIÑA / SIATA / ZITROYA/...

29. Aldameneko herriei emandako izena.

HONYARBI/HONDDARBI (Hondarribia), ERRENTEIYA (Errenteria-Orereta), PASA-YA (Pasaia), SAN JUAN (Pasai Donibane),...

30.- Atzizki bereziak

-KETAYA (-ketaria) = aritzen dena, jarduten duena. Adibidez: esneketaya, zezenketa-ya, txokorketaya,...

31.- Bestelakoak

Azken atal hontan sartu egingo ditut sailkapenerako egindako sailetan sartu ezin izan ditudan bestelako hitz guztiak. Barkaiez zaidazue nahasmendua.

EBAINDURA (jipoia, egurra), AIHEKA (aldea, gunea), KANTOIA (izkina, ertza), GALBANA (pereza), HORMA BELTZA (begi bistan ikusten ez den horma, eta horregatik bestea baino askoz arriskutsuagoa dena), HORMAZIRIA (elurte haundietan, teilatuetatik edo, zintzilik gelditzen diren ziri zorrotz eta hormazkoak), ANTIOJUAK/ANTIPARRAK (betaurrekoei ematen zaizkien izen xelebreak), LIBRUA (liburua), ILAJIA (ilajea, ile haundia), TXIMAK (ile mordoak, beste ileetatik nabarmentzen direnak), KALPARRAK (ile mordo luzeegiak), LOALIA (logurea), AHULIDADIA (ahulezia), PIXALIA/TXIZALIA (pixarrakada), MARRANTA, ERDOIA (erdoila), EGARBERA (egarritua), KORKOLIXA/KAILUA (hezur korapiloa, erdaraz "taba" esaten diote), LAIÑEZA (harrokeria), HERRA (inbiria, bekaitza), TEMA (kaxkagorkeria), AZPIJANIAN (azpitik eta ezkutuan egindako joku zikina), ARRONTE (arrunt, zeharo, osoki, guztiz), ARRONTIAN (osoan, goitik behera), BAIKI (noski) PIXARRA (apurra, kondarra, azkeneko pixka), HONDARRA (kondarra), KIIA (kehea), KIATZA (keheatza, kehe pila), ZINTZILIKARIYUA (zintzilikarioa, zintzilik dagoena), KIERRA (kirtena), ZIMIKOA (atximurra, atximurkada), PAILAKA (lantzana, fereka), ARTEXIA, ZIRRIKITOA, PITZADURA (goitik behera hautsi dena), FRANKO (asko), ENDANA (andana), ZAPATEKO (zaplaztako, zoplamo), TXORROSKILERUA (zorroztailea), ALBAITERUA (albaitaria), BETEKA (ondo jan edota edan ezkeroko bete-bete eginda geratzea), ZIRRIKITON (erderazko Matusalen. Adb.- Kontatu duena Zirrikiton garaian gertatu yunen neska!), GORDEKETAN (izkutuan), PURRUSTAN (purrustadak eginez), LARRUBIZI(RI)K (biluzik), BURNIZIRIA, (labe edota garai bateko sutondo ekonomikoetan, tapa mugitzeko edota ikatza astintzeko erabiltzen zen burni



"Eguna bezain laister zabal atariak. Agur zuri, ta zuk, neri, lagunurkoari. Agur, agur, agur, agur t'érdi!"

luzea, puntan kakoa bezala zuena), AISA (erraz), IZEN NONBRIAK (izen-deiturak), LUZA-LUZA EGINDA (luzatuta ahal den gehienez), TIRANAHIETAN (nagiak ateratzen), AHO ZABALKA (aharrausika), GIZASEMIA (gizasemea, gizonezkoa), JELATUA (izozkia), ESNEGAIÑA (esnegaina, esnegoena), MAKULUA/BASTOIA (ibiltzean laguntzeko erabiltzen den makila), BIZIALARGUNA (banatua, separatua, dibortziatua), GOBARA (harrikoa, bukata), SUSALDIA (behiaren arreske garaia), LASAI EDERREAN (oso lasai),...

32.- Herri esaerak

- 1.- OHITTUAN OHITTU.- Honekin adierazi nahi dute gauzak eginez ikasten direla, edo eginbeharra eginez menperatzen dela.
- 2.- ALLERRUKO AMONAK SUA PIZTU DU!.- Honela esaten omen dute Gaintxurizketako baserrietan, ekaitza Alerru menditik barrena doakiela ikusten dutenean.

Hauxe ez da inolako ikertarik, bilduma soila baizik, eta honela hartu behar da. Badakit, soberan gainera, hemen azaldutako zenbait gauza guztiz eztabaidagarriak izan daitezkeela, asko eta asko tokian tokiko gauzak baitira. Izan dadin nire bilduma hau Lezo eta lezoar guztiei eskein diezaiekedan omenaldirik onena. Ondo esanak onartu eta gaizki esanak barkatu!

Joseba Aurkenerena Barandiaran

